

getxoBerri

/ Nabarmentzekoak

- > "Best Getxo", Emakume Sortzaileen Topaketa Muxikebarrin (2. or.)
- > "Bitels para bebés"-ek Liverpoolgo bandari omenaldi interaktiboa planteatzen du (3. or.)
- > Zabalik dago epea Getxoko enpresek langileak kontratatzeko laguntzak eskatzeko (4. or.)



Ginebras, talde dibertigarri eta lotsagabeena, Getxora dator

(3. orr)

Umorezko ikuskizuna. Hilaren 15ean, ostirala, 19:30ean, Muxikebarrin, "FutbolisTOC", Zuhaitz Gurrutzagarekin (gaztekeraz). 10€.

Kontzertua. Hilaren 16an, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, Izaro abeslariaren emanaldia. 25€.


**A-
GENDA**

Udal hilerrian haurdunaldiko, jaiotza-inguruko eta jaioberrientzako dolu-gune bat prestatzeko mozioa ere onartu du osoko bilkurak

Getxo Kultura erakunde autonomo berriaren hasierako onespina, Kultur Etxea eta Andres Isasi Musika Eskola barne hartzen dituen

Denboralearen ondorioz Valentzian eta Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan egondako biktimak oroitzeko minutu bateko isilunea egin ostean, urriko Ohiko Osoko Bilkura hasi zen udaletxean iragan ostegunean, urriak 31. Bilkura horretan, EAJ/PNV, PSE-EE eta PP taldeen aldeko botoekin, EH-Bilduren aurkako botoarekin eta Elkarrekin Podemosen abstentzioarekin, ontzat eman zen Musika Eskolaren eta Kultur Etxearen xurgapen bidezko bat-egitearen hasierako onespina, zeina 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatu baita. Horrenbestez, bi erakunde autonomoetatik bakarrik sortuko da, Getxo Kultura deituko dena.

Erakunde horren estatutu berriak direla-eta aurkeztutako zuzenketei dagokionez, Kultur Etxearen Zuzendaritza Batzordean PPK aurkeztutako guztiak onartu ziren; bai EH-Bilduren sei zuzenketak, bai Podemosen hirurak, berriz, baztertu egin ziren. PPkoak pozik agertu ziren bere taldearen zuzenketak onartu izanagatik, besteak beste Artezkaritza Kontseiluak (eta ez Presidentetzak) izendatu dezan zuzendari kudeatzailea eta kontseilu horrek urtean gutxienez hamaika bilera izan ditzan, bai eta ordezkari politikoen gutxieneko kopuru bat ere. EH-Bilduk eta Elkarrekin Podemosek uste dute estatutu berrien bidez eskumenak kenduko zaizkiola Artezkaritza Kontseiluari, Presidentetzaren alde, eta biek proposatu zuten herritarren parte-hartzea handitzea. Bestalde, Kultur Etxeko presidentek adierazi zuen elkarrekin Artezkaritza Kontseiluan hartu dezaketela parte, baita herritarrek



**GETXO +
KULTURA**

oro har ere, galde-eskeak egiteko txandan. Ildo beretik, esan zuen estatutuen 20. artikuluan argi eta garbi jaso dela herritarrek parte hartzeko foroak bultzatuko direla.

Udal-gobernuaren ustez, bat-egitea, besteak beste, "aukera historikoa da udalerriko kultura- eta hezkuntza-eskaintza sendotzeko, baliabideak optimizatzeko eta Bizkaiko kultur erreferente gisa nahiz EAEn abangoardian kokatzeko Getxo. Hauexek dira ekarriko dituen hobekuntzak: Getxoko kultura- eta musika-politika sendotuko dira; bi erakunde autonomo horien nortasuna eta idiosinkrasia bermatuko du; sinergiak sortuko ditu bai sormen- nahiz kultura-prozesuan, bai gaur eguneko nahiz etorkizuneko artista getxoitarren prestakuntzan eta profesionalizazioan; baliabide arruntak optimizatzea bultzatuko du; plangintza nahiz kudeaketa

hobetuko ditu; eta alderdi ekonomikoan ere sinergiak sortuko ditu; izan ere, aurrekontu gehiago bideratu ahalko zaio prestakuntza, sorkuntza eta erakusketako artistikoaren zikloari, haren alderdi guztietan, eta bereziki musika-alderdiari dagokionez".

Beste kontu eta mozio batzuk
Horrez gain, osoko bilkura horretan jakinarazi zen 250.000 euroko kreditu gehigarria bideratu dela Algortako Aita Felix de la Virgen kaleko 2B eta 4 zenbakietako beheko solairuan dauden lokaletan ludoteka berria egiteko, horixe adostu baitzuen Gobernuak PP taldearekin aurtengo aurrekonturako.

Mozioen atalean, bost onartu ziren. Aho batez atera zen aurrera Elkarrekin Podemosek planteatutakoa, hau da, udal-hilerrian

haurdunaldiko, jaiotza-inguruko eta jaioberrientzako dolu-gune bat prestatzea eskatzeko, hain zuzen ere, erlijio-konnotaziorik gabeko gune bat, maite duten pertsona bat galdu duten familientzako topaleku bihurtuko dena; gunea arlo horretan lan egiten duten elkarrekin lankidetzan diseinatzeko; eta 2025eko aurrekontuko partida bat bideratzeko espazio hori behar duten lanei ekiteko.

Gainera, testigantza-izaerako beste lau mozio onetsi ziren. Lehengo PPk aurkeztu zuen, San Nikolas kaleko 11. zenbakiko eraikinaren obrari lotuta ikerketa-batzorde berezia eratzeari dagokionez. Bigarrena, PPrena ere, adinekoentzako Eguneko Zentro berri bat sortzeko. Gobernuak adierazi zuenez, hori ez da Udalen eskumena, Foru Aldundiarena baizik. EH-Bilduk planteatutako hirugarrenak eskatzen zuen Udalak konpromisoa hartzea behar diren urratsak emateko, ahalik eta lasterren Berdintasun Teknikariaren bigarren plaza bat sortzeko eta 2025eko aurrekontuan partida bat jartzeko; eta laugarrenak, Podemosek proposatutakoak, Udalak, Uribe Kostako mankomunitatearekin duen koordinazioan, neguko aterpetxea jardunean dagoen bitartean egunero irekitzea proposatzeko.

Herritarren galde-eskeen txandan, lau pertsonak hartu zuten hitza: batek, Portu Zaharreko jaietako sokamuturra kentzea eta Getxo animaliarik gabeko jaietako udalerrizendatzea eskatzen duten bizilagunen izenean, eta beste hiruk, udal garbiketa zerbitzuari eta bere lan errebindikazioei buruz aritzeko.



AZAROAK 7 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Isabel Coixetan "Nadie quiere la noche" (gaztelera). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Txatxarrak taldearen saioa. 19:30ean, Romo Kultur Etxean. Garazi Basterretxea Bareak gidatuta, testuak sortuko dituzte ikuspegi feministatik, euskaraz. Izen-ematea: 619935541/egizugetxo@gmail.com

AZAROAK 8 OSTIRALA

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten nagusien topaketa. Gaztelera.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Lone Scherfigaren "La contadora de películas" (gaztelera). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, "Ginebras". Sarrera: 25€.

Kontzertu didaktikoa. 18:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Congo" (jazza). Sarrera dohainik.

Kontzertua. 20:00etan, Ama Mesedeetako parrokiak, "Xaramela Abesbatza" (Baiona) eta "Coral Ondarreta Abesbatza". Sarrera dohainik.

AZAROAK 9 LARUNBATA

Best Getxo Kongresua. Getxoko Emakume Sortzaileen Topaketa. 11:00etan, Muxikebarrin. Sarrera gonbidapenarekin.

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Gotzon Barandiarán. 6€.

Musika eta Dantza ikuskizuna. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Itsasoa laino dago", Soinuak haizean taldearekin. 5€.

Dantza plaza. 19:00etan, Kurutzagane parkean (Zubileta), erromeria udalerriko Dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

Ipar martxa. Getxotik ibili. 10:00etan, irteera Algortako batzokitik. Makilen mailegua eta presakuntza txikia 09:15etik aurrera. Informazioa: nw.itxartu@gmail.com Antolatzailea: Itxartu Mendi Taldea.

AZAROAK 10 IGANDEA

Zinematxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Zutik" (euskaraz). 2,50€.

Haurrentzako kontzertua. 16:00, 17:15 eta 18:30ean, Muxikebarrin, "Bitels para bebés", La Petita Mamalugarekin. 0-3 urte. 6€.

Zurumurruen kontrako ipuin kontaketa 17:00etan, San Nikolas ikastolako gimnasioan, Agharas Imazighen elkartearen eskutik, Getxo Antirrazistak eta Hezetasuneko Jai batzordeak elkarlanean antolatuta.

AZAROAK 11 ASTELEHENA

Merkatu txiki solidarioa. Romoko San José elizan. 11:00-13:30 eta 17:00-20:00 (astelehena-larunbata) eta 11:00-14:00 (igandea). Antolatzailea: Gizatiar Romo-Areetako emakumeen elkarte sozio-kulturala. Hilaren 17ra arte.

AZAROAK 12 ASTEARTEA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJANeren egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat. Dohainik.

Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Competencias autonómicas. Seguridad Social". Hizlaria: José Ramón Urrutia. Antolatzailea: Mugabarik-Garapen pertsonal eta komunitariorako elkarte.

AZAROAK 13 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat. Dohainik.

AZAROAK 14 OSTEGUNA

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko V. jardunaldiak. Dokumentala eta mahai-ingurua. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "No estás sola: la lucha contra la manada" Almudena Carracedo zuzendariarekin. Antolatzailea: Gizatiar elkarte.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Andrew Haighen "Desconocidos" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

AZAROAK 15 OSTIRALA

Umorezko ikuskizuna. 19:30ean, Muxikebarrin, "FutbolisTOC" Zuhaitz Gurrutxagarekin (gaztelera). 10€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Hlynur Palmasonen "Godland" (gaztelera). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Zine Foruma. "Il Cine: Cultura y Sociedad. Un espacio de diálogo". 18:30ean, Romo Kultur Etxean, Paul Greengrassen "Capitan Phillips" filmaren proiektzioa. "Responsabilidad y heroísmo" (gaztelaniaz). Moderatzailea: José Manuel Gutiérrez (Artearen Historiako irakaslea). Doan. Erreserbak eta informazioa: cineforumgetxo@icmediaeuskadi.es

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica". Hizlaria: Diego de Amigo, biolin irakaslea eta konpositore garaikidea. Informazio gehiago eta izena emateko (dohainik): <https://allantica.org/>, info@allantica.org Tel. eta WhatsApp: 650 697 627 Antolatzailea: All'Antica Musika Kultur Elkarte.

Liburuaren aurkezpena. 19:00etan, Benta auzogunean (Angel Etor. 49), "Mujeres que mueven montañas" liburuaren aurkezpena Begoña Santos Olmeda egilearekin.

AZAROAK 16 LARUNBATA

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Izaro abeslariaren emanaldia. 25€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Folk Rippers". 5€.

AZAROAK 17 IGANDEA

Zinematxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Momias" (gaztelera). 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Lassie, una nueva aventura" (gaztelera). 2,50€.

Haurrentzako musika-ikuskizuna. 16:30ean eta 19:00etan, "Bisonte-mastodontearen bila" Ene Kantak taldearekin (euskaraz). 6€.

Antzerkia. XIX. Emakumeak Ezenan Zirkuitua. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Los ángeles de Xabin" (gaztelera). 4,50€.

Saharar herriaren eskubideei buruz izango da Europako Tokiko Elkartasun Jardunaldia

Saharar herriaren eskubideak, elkarlanerako eta elkartasunerako ikuspegi berriak aztertuz izango da aurten EDLS-European Days of Local Solidarity jardunaldiaren bederatzigarren edizioaren izenburua. Hori datorren azaroaren 15ean izango da Getxo Elkartegian (Ogoño 1, Areetak), Gexoko Udalak, eLankidetzak-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Euskal Fondeoak antolatuta. 2030 Agendan aurrera egiteko giltzarri diren aldetik, udalerrian GJH-Garapen Jasangarrirako Helburuak ezarri nahi dituen ekimena PLATFORMA, Europako hiri eta eskualdeen sarean sartzen da, hezkuntza orokorrean eta nazioarteko lankidetzan aktiboki parte hartzen duten hiri eta eskualdeen sarean, alegia.



Egitaraua

Carmen Díaz, Gizarte Kohezioko zinegotziaren ongietorriaren ondoren, 10:00etan, Itsaso Andueza, Euskal Fondeo Sahara Koordinazio Unitatekoa lankidetzak eta elkartasuna sakontzeko tresnaren zereginaz mintzatuko da. Ondoren, Maite Fernández-Villa Hegoa Institutukoak Egiaren, justiziaren eta erreparazioaren eskaerak babestea: historia dokumentatzearen garrantzia hitzaldia aurkeztuko du. 11:00etan, Oubi Buchraya, Fronte Polisario Genevako ordezkariaren solasaldiaren izenburua Nazioarteko zuzenbidearen eta nazioarteko harremanen ikuspegi berriak aztertuz, Europar Batasuneko Auzitegi Gorenaren epaien esparruan izango da. Ordu bete geroago, Begirune fundazioaren izenean, Andrea Ruiz Balzolak Saharako gazteen egoerari buruzko diagnostiko-txostena aurkeztuko du, eta 12:30ean, Yaguta El-Mokhtar Moulay UJSARIO-Saguía el-Hamra eta Rio de Oro Gazteriarren Batasunekoak azalduko ditu Mendebaldeko Sahararekiko Elkartasunaren aldeko Gazteen Nazioarteko III. Foroaren ondorioak azalduko ditu.

Doako izenematea egiteko <https://labur.eus/i4gF6> webgunean eskuragarri dagoen fitxa bete beharko da eta lankidetzak@getxo.eus helbidera bidali.

"Best Getxo", Emakume Sortzaileen Topaketa Muxikebarrin



Larunbat honetan, azaroaren 9an, 11:00etatik aurrera, eta egun osoan zehar, Best Getxo Getxoko Emakume Sortzaileen Topaketa hartuko du Muxikebarrin. Ekimenaren helburuak dira udalerriko emakume sortzaileen unitate berrak eta talentua jendeari hurbiltzea eta kultura-sektorean genero-berdintasuna sustatzea.

Ekimena interesa duten guzientzat zabalik dago eta sarrera doakoa da.

Honako hauek dira gonbidatuak: Izaro Ieregi artista bisuala, Olatz Ganboa aktorea, Mariasun Yanguas zuzendari korala, Maite Mentxaka diseinatzailea, Irantzu Garamendi sortzaile eta abeslaria, Araitz Lasa dantzaria, Naroa Torralba bertsolaria, Jare Torralba aktorea eta Itxaso Paya aktore eta sortzailea.

"No estás sola: la lucha contra la manada" dokumentala, RKEN

Gizatiar elkarteak antolatzen dituen Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko V. Jardunaldien barruan, ostegunean, hilak 14, 18:30ean, Romo Kultur Etxea-RKEN, *No estás sola: la lucha contra la manada* dokumentala proiektatuko da. Ondoren, bere

zuzendariak, Almudena Carracedok, parte hartuko du solasaldi batean. Sarrera doakoa izango da lekua bete arte.

Azoka txiki solidarioa

Gainera, elkarteak urteko elkartasunezko azoka txi-

kia antolatu du, azaroaren 11tik 17ra, Romoko San Jose Obrero elizako parroki-lokaletan. 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara bisitatu ahal izango da, astelehenetik larunbatera (igandean, 11:00etatik 14:00etara).



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erakundeetako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. **Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.** Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Ginebras, talde dibertigarri eta lotsagabeena, Getxora dator



Ginebras, gaur egungo indie-rock laukote dibertigarri eta lotsagabeena, Muxikebarrin izango da ostiral honetan, azaroak 8, 21:00etatik aurrera. Sarrerak 25 euro balio du.

2018an sortutako taldeak, duela gutxi, Ondas saria lortu du urteko *Fenomeno* musikaren kategorian. Bere azken albumak, *¿Quién es Billie Max?*, talde helduagoa eta, aldi berean, ausartagoa erakusten du. Abesti "fresko eta perfektuak" aurkeztu ditu, besteak beste, Alex Turner, Ansiedad, Desastre de personas, Omeprazol edo En Bolas abesti nabarmenekin, kideek beren ibilbide musikalean izandako bizipenak islatzen dituztenak.

Ginebrak dira: Magüi (gitarra erritmikoa eta ahots nagusia), Sandra (gitarra bakarlarria eta bigarren ahotsak), Raquel (baxua) eta Juls (bateria). Indie kutsuko pop unibertso propioa sortu dute, "beti umore handiz eta rollitoz kontatutako letra autobiografikoekin batera".



"Itsasoa laino dago", musika eta dantza ikuskizuna

Soinuak Haizean taldeak *Itsasoa laino dago* musika eta dantza ikuskizun berria aurkeztuko du azaroaren 9an, larunbata, 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Sarrerak 5 euro balio du.

Proposamen berritzailea da, eta hainbat arte eszeniko uztartzen ditu: dantza tradizionala eta garaikidea, harizko laukoterako eta antzerkirako zuzeneko musika, hainbat arxibotatik berreskuratutako bideoek lagunduta, eta XX. mende hasierako gure portuetako bizimoduaren irudiak erakusten dituzte. *Itsasoa laino dago* ikuskizunak Tarantela dantza konpainiaren eta Oreka Quartet hari laukotearen laguntza du eta Ines Arestiren koreografia eta testuak ditu eta euskal egile ospetsuen musika, gure folklorea oinarritutako konposizio berriekin batera.

Kontzertu didaktikoa

Aurreko egunean, azaroaren 8an, ostirala, Didi Jazz taldeak kontzertu didaktikoa eskainiko du, 18:00etan, Musika Eskolan. Bertan jazzaren historiaren munduan murgilduko gaituzte, esklabotzatik gaur egunera arte, "Congo" pertsonaiaren bidez.

Kontzertu korala

Ostiralean ere, hilak 8, baina 20:00etan, Xaramela Abesbatza (Baiona) eta Coral Ondarreta Abesbatza taldeek kontzertua eskainiko dute, sarrera doan, Ama Mesedeetako parrokiaren emanaldi hau bi abesbatzen arteko kultur elkartruke baten parte da.

"Galbahea", bertsoak eta musika Gotzon Barandiaranekin

Gotzon Barandiaran idazlearen euskarazko poema liburuan oinarritutako "Galbahea" ikuskizun poetiko-musikala Muxikebarrira iritsiko da larunbat honetan, azaroak 9. 20:00etan hasiko da eta sarrerak 6 euro balio du.



Gotzon Barandiaranek "Galbahea" idatzi zuen, bere hirugarren poema liburua, hitzei zentzua aurkitzeko, baina baita bizitzari ere. Galbahe horretatik, besteak beste, maitasuna, oroimena eta amaren heriotza bezalako gaiak iragazten dira. Ikuskizun honetan Lander Bilbao, Mariana Blanco, Rafa Rueda, Urdin Baraiazarra eta Uxue Garciak

joko duten harizko eta perkusiozko instrumentuen (biolina, gitarra, mandolina, txirula, ahoko harpa eta perkusio-bateria) abestiek eta musikak lagunduko dute.

1974an Larrabetzun jaioa, Gotzon Barandiaranek beste bi poesia liburu argitaratu ditu: "Arrakalak" eta "Katamalo" baita "Errotik" eleberria ere.

"Bitels para bebés"-ek Liverpoolgo bandari omenaldi interaktiboa planteatzen du

La petita malumaluga haurtxoentzako, lehen haurtzaroentzako eta haien familientzako arte eszenikoen proposamenetan espezializatutako konpainiak *Bitels para bebés* ikuskizuna aurkeztuko du igandean, hilak 10, Muxikebarrin.

16:00, 17:15 eta 18:30eko saioetan, 6 euroko sarrerarekin, mugimenduan dauden lau musikaririk (biolina, saxoa, txeloa eta perkusioak) eta dantzari batek haurrak eta haien familiak gonbidatuko dituzte Liverpoolgo bandari omenaldi bero eta zirrargarri batean parte hartzera. Eszenaratze interaktiboak lagundu egingo die haurrei ikuskizuna posible egiten.



Zabalik dago epea Getxoko enpresek langileak kontratatzeko laguntzak eskatzeko

Abenduaren 31ra arte egongo da zabalik epea 2024an enplegua sortzea sustatzeko Getxoko enpresei zuzendutako laguntzak eskatzeko. Laguntza horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko tokiko ekintzetara bideratutako laguntzen deialdiaren barruan daude. Dirulaguntza eskara aurkezten den hurrenkaren arabera emango da, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osatuta badago, aurrekontu-kredituaren mugaraino: 134.195 euro.

Dirulaguntza hauek Getxon erroldatuta dauden eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda dauden langabeak kontratatu dituzten tokiko enpresei zuzenduta daude. Kontratu horiek 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean hasitakoak izan beharko dute, eta mugagabeak, lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan beharko dute, lanaldiaren %50arekin gutxienez. Gehieneko laguntza 8.000 eurokoa izango da lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko. Diruz lagunduko dira lanaldi partzialeko kontratuak ere, gutxienez lanaldiaren %50ekoak. Laguntza 10.000 eurora arte igoko da DSBE/GGIren titular edo onu-

LAGUNTZA EKONOMIKOAK

AYUDAS ECONÓMICAS

Langileak kontratatzeko

Para la contratación de personal

Honakoien babesarekin:
Con el patrocinio de:

Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Getxo
Ekonomia - Sustapena
Promoción económica
bizi ezazu

radun diren pertsonen, 35 urtetik beherakoen, iraupen luzeko langabeen eta 55 urtetik gorakoen kolektiboetako pertsonak kontratatzen badira.

Aurten ere diruz lagunduko dira artisten eta ikuskizun publikoetako teknikarien eta laguntzaileen iraupen jakineko kontratuak (horien gutxienezko iraupena 3 hilabetekoa izango da, eta lanal-

di osokoak edo partzialekoak izan daitezke, gutxienez lanaldiaren % 50ekoak). Kasu honetan, gehieneko laguntza 6.000 eurokoa izango da 6 hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko (3.000 €, 3 hilabeteko kontratuarentzat). Eta laguntza 7.500 eurora arte igoko da 6 hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko, baldin eta DSBERen titular edo

onuradunen, 35 urtetik beherako pertsonen, iraupen luzeko langabeen eta 55 urtetik gorako pertsonen kolektiboetako pertsonak kontratatzen badira.

%50etik gorako edo 3 eta 6 hilabete arteko lanaldi partzialeko kontratazioei dagokienez, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko muga), edozein kasutan, lanaldiaren eta/edo lan egindako denboraren proportzionala izango da. Bestalde, kontratuak emakumeei egiten zaizkienean, dirulaguntzaren zenbatekoa %10 handituko da. Laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako kostuen %75 (kolektiboaren kasuan, %100).

Gainera, kontratazioek enplegu-sorrera garbia ekarri beharko dute berekin, diruz lagundutako kontratuaren xede diren pertsonak enpresan sartu aurreko 6 hilabeteetan enpresan dagoen batez besteko plantilla osoaren gainean. Kanpoan geratzen dira aurreko deialdietan enpresa berean pertsona berak kontratatu izanagatik laguntza jaso duten lan-kontratazioak.

Informazioa:
<https://tinyurl.com/ms6kpkvtv>

37.500 euro negozioetan berrikuntzak proposatzen dituzten Getxoko 18 enpresarentzat

Udalerriko 18 enpresaren artean banatuko da Udalak Dinamizatzeko Laguntzen 1 Ildoari bideratzen dizkion 37.511 euroko dirulaguntza, hots, negozio-lerro berriak eta/edo produktu berri-tzaileak eta/edo horien merka-

turaztea sustatu eta dinamizatu nahi duten udalerriko enpresei zuzendutakoa.

Udalerriko 22 enpresak eskatu zituzten laguntzak, eta 18 enpresari eman zaizkie. Juanma González Getxolan-Sustapen Ekonomiko zinegotziak adierazi duen bezala, "aurkeztutako proiektuen aniztasuna nabarmentzen da, besteak beste: pilotaje batean probatutako negozio-lerro berri baten garapena, eta negozio-lerro disruptibo batena. Zenbait eskaeratan ikusten da lehendik dauden negozio-lerro batzuetatik abiatuta negozio-lerro berriak sortzea, baita enpresetan, hazteko helburuaz, aldaketak egiteko planteamenduak ere, bai espazio berrian instalatuta, bai bezeroarengana iristeko kanal berrien bidez. Espero dugu udalaren laguntza honek enpresa horiei aukera ematea hazten jarraitzeko eta sendotzeko, gero eta enpresa-sare indartsuagoa eta berri-tzaileagoa sortzeko".



EstiMua-Especio de bienestar guneari aitortzen ile-apainketaren sektorean

EstiMua-Espacio de Bienestar izeneko guneari (Jata kalea, 5), Estibaliz Zabala García zuzenduta, 4 estrellas de QHair aipamena jaso ditu ile-apainketaren bikaintasun eta kalitateagatik.

Madrilgo IFEMA Look Saloian egindako ekitaldi batean, Albert Catalan sarietako presidentek gogorarazi zuen "sari horiek negozioaren kudeaketa nabarmenean, emaitza ekonomiko-finantzarioetan, bezeroekiko arretan, estiloetako sormenean, prozesuen eta enpresaren berrikuntzan, markaren komunikazioan eta garapenean eta langileen prestakuntzan eta trebakuntzan oinarritzen direla, besteak beste". Aintzatespen horrek etorkizuneko erronkei aurre egiteko aukera ematen duen ekosistema bat ere eskaintzen du, gai garrantzitsuetan irtenbideak eskainiz, hala nola komunikazioan, erosketetan, komunitatean eta coaching-een.



Udaleko Lorezaintza Zerbitzuak aurreratu egin ditu Areetako Kale Nagusiko eta Ibaiganeko lore-udareondoak berritzeko lanak

Udaleko Lorezaintza Zerbitzuak Areetako Kale Nagusian eta Ibaigane kalean *Prunus Amanogawa* espeziearen 35 ale lore-udareondoekin (*Pyrus Calleriana Chanticleer*) ordezkatzeko lanak aurreratu ditu. Horrela, zuhaitzen birjarpena aurreratu da, nahiz eta denak ez zeuden hilda. Hain zuzen ere, hilda ez zeuden aleak edukiontzian sartuko dira (sustraiak babestu, birlantatu arte lehortzea saihesteko) eta udalerriko beste eremu batzuetan birkokatuko dira.

Sasoiko lore-aldaketa ere hasita 2024-2025eko udazken-neguko lorea aldatzeko lanak aurreko astean ere hasi ziren egiten, eta kanpaina berriaren zehar espezie-tako 2.4000 unitate baino gehiago landatuko dira, horien artean, pentsamenduak, biolak, krisantemoak, anthirrinumak eta kolore desberdineko aubrietak. Udal Lorezaintza Zerbitzuak kanpaina berri honetan aurreikusitako landaketak udalerrian sasoiko loreak dituen azalera handi bat hartuko du (berdeguneak, jardinerak, biribilguneak eta irlatxoak barne). Loredun 934 m²-ko azaleratik, 878 metro koadrotan tepe berria jarriko da, eta gainerakoa zuhaixka-espezieak izango dira (lorerik gabek).

Lorea Getxon zehar banatutako hogeita hamar bat gunetan kokatuko da, horien artean, Bizkaia



Zubia eta Areetako Geltokia plazaetan, Abantzan, Arriluzen, Ganetan, Errekaganen, eta Santa Ana ermitan eta Ormazan.

Urtero sasoiko loreak landatzeko bi jarduketa egiten dira, udabe-



rriarekin eta udazkenarekin batera. Espezieen osiera nahasteen arabera da, zenbait parametroetan oinarritzen dena: esposizioa, orientazioa, itsasoko gaitasun-eraginak, lurzoruak, eta abar.

Jarduera horien bidez, Udala azken urteotan lorezaintzaren arloan udalerriko kaleak apaintzeko garatzen ari den ekintzak hobetzen laguntzen da, herritarrek parke, lorategi eta lorezgoza dezaten. Horregatik, Udalak, beste behin ere, lore-gune horiek guztiak errespetatzeko eskatzen du, gure kaleak edertzen baitituzte eta herritar guztien ondare baitira.

Denboraldiko lore-aldaketaren ondoren, biribilguneak eta loreontziak egokitzeko eta edertzeko lanei ekingo zaie udalerriko hainbat eremutan. Negua hasita, lerrokaduran eta berdeguneetan kaltetutako 215 zuhaitz-ale berri-tuko dira, hala nola *Cercis Siliquastrum*, *Arces*, *Tilias*, *Quercus*, *Prunus*, *Potinias* eta abar.

KIROLAK

Abrako Itsas elkarteko Biobizz, J80 klaseko 2024ko Ranking Nazionaleko irabazlea

Jose Azquetaren *Biobizz*-ek, Real Club Marítimo del Abra elkarteko belaontziak, 2024ko Ranking Nazionala irabazi du J80 klasean, Armando Gutierrezen eta Ignacio Camino munduko txapelkunaren *Solintal* (Santanderreko Real Club Marítimo) eta Dani Cuevasen *Kouko* (Marbellako Real Club Marítimo) ontzien aurretik, bigarren eta hirugarren izan direnak, hurrenez hurren. Klase indartsu honetako denboraldia azken txanpan dago sartuta, jardunaldi bakarra falta baita J80 Finaletako garailea erabakitzeko, lehiaketetan izandako parte-hartze arrakastatsuak ezaugarri nagusi izan dituen urte batean.

Biobizz-ek modurik onenean eman zion hasiera 2024ari J80 Ligako garapenarekin, iazko Sailing Final Seriesen ostean. Halaber, Santan-



derreko Espainiako Txapelketan hirugarren izan da, Arroxelako Munduko Txapelketan bosgarren eta Coruñaeko Espainiako Txapel-

ketan zortzigarren. Abrako uretan orain arte egindako probetan ere emaitza handiak eta hainbat garapen lortu ditu.

Mendiko argazki erakusketa

Algortako Torrene kaleko udal Azokako erakusketa aretoan, Etorkizuna Mendi Taldeak antolatutako mendiko argazki erakusketa izango da ikusgai azaroaren 16ra arte, larunbata. Izan ere, 20 irudiz osatutako sorta da, talde horrek sustatutako V. Argazki Lehiaketara aurkeztu zirenak, hain zuzen.

Bertan ere, erakusketak irauten duen bitartean, bisitariak argazkiak ikusi eta gehien gustatzen zaizkienak bozkatzeko aukera izango dute. Halaber, mendiko material osagarriaren zozketa egingo dute lehiaketan parte hartu duten pertsona guztien artean, argazkiak aurkezteagatik edo botoa emateagatik.

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, PARTE-HARTZEAREKIN KONPROMETITUTA

Getxoko EAJ-PNVk gure herritarrei egindako proposamenen, ardatz estrategiko gisa nabarmentzen dugu gure herritarren beharrez eta eskakizunei erantzutea; hala, hauek dira gure zeharkako kontuak: berrikuntza, gardentasuna eta goi-mailako kalitatea.

Herritarrek parte hartzeko hainbat prozesutan murgilduta gaude, duela urtebete eta erdi hartutako konpromisoari behar bezala erantzute aldera. Gure hauteskunde-programan jasota dagoen bezala, herritarrek parte-hartze aktiboa dute gure parte-hartze izaerako aurrekontuetan nahiz Getxo Txukun prozesuan; halaber, proiektu estrategikoetan zuzenean hartzen dute parte, eta aipatzekoa da ere horri lotuta Zeugaz plataforma sustatu dugula.

Horiek horrela, batzuek kontrakoak dioten arren, nabarmena da kontu ho-

rretan hartutako konpromisoak ere betetzen gabiltza.

Getxoztar guztiok Getxoko Udalaren 2025. urteko aurrekontuan sartzeko interesgarriak iruditzen zaizkigun programak nahiz ekimenak proposatu eta ondoren hautatzeko aukera izan dugu. Izan ere, etxean bezala gertatzen da: proiektuak, ekimenak, ekintzak eta oro har jorratu beharreko proposamen oro aurrekontuan jasota egon behar dira.

Ildo beretik, Sarrikobasoko inguru guztian bizi garenok Getxo Txukun prozesuan hartu dugu parte. Parte hartzeko fasea amaitu berri da eta udaleko askotariko arloei dagokie orain jasotako proposamenak bildu, ordenatu, baloratu eta sailkatzea, alderdi teknikoak nahiz ekonomikoak aintzat hartuta proposamenak gauzatu ote daitezkeen erabakitze aldera.



Bete dugun beste konpromiso bat da proiektu estrategikoetan parte hartzea ahalbidetzea, zehazki San Nikolas 23ko espazioa ("Txokerak" izenez ezaguna) dela-eta egindako ekarpen bidez hartu baitute parte herritarrek. Portu Zaharreko lokal horretarako planteatutako proposamen ugariaren laburpena ixten dabilta jada, askotariko sektoretako pertsonen egindako lan saioetan.

ZEUGAZ ere nabarmendu behar da, Getxoko Udalaren web-aplikazioa, Getxo irekiagoa, gardenagoa, elkarlanekoa eta herritar guztiak protagonista bihurtzen dituen udalerrria izan dadin.

Parte-hartzea eta lankidetzak, gure zerbitzu guztiak kalitate gorenekoak izan daitezkeen.



IKERKETA-BATZORDE BEREZIA ERATZEA ONETSI DA OSOKO BILKURAN

Getxo udalerriko PP taldeak, Udaleko osoko bilkuran, **Ikerketa Batzorde Berezi** bat eratzea proposatu zuen, funtzionamendu publikoa eta gardena izango duena, "Irurak Bat" jauregitxoaren legez kanpoko eraispena ikertze aldera; izan ere, udalerriarantz oraindik garrantzitsua den gertaera da. Proposamen horren bidez, alderdi honek alkateari eskatu zion, udaletxe honen agintari gorena den aldetik, aipatutako batzordea eratzeko babes eman dezan. Hori dela-eta, gure gobernu-taldeak eraikin historikoarekin gertatutakoa argitu nahi ez

izan arren, alderdi honek babes nahikoa lortu zuen batzordearen onespena bermatu ahal izateko.

Era berean, alderdi honek espero du alkateak betetzea Udaltzatzen erabakitakoa eta jauregitxoaren eraispinari buruzko Ikerketa Batzorde Berezia, adostu bezala, **azaroaren 12an (asteartea) egitea, 12:00etan**. Aipatutako konpromisoa giltzarri da gardentasunaren ilduan aurrera egiteko eta talde politiko guztiei gai gatazkatsu hori aztertzeke aukera emateko.



ehbildu

GIZARTE ZERBITZUAK ZUBILETA-ALDAPAN ETA ANDRA MARIN

Urriko osoko bilkuran, EH Bilduk gai ezberdinekin lotutako hiru mozio aurkeztu zituen. Lehenik eta behin, Zubileta-Aldapa eta Andra Mari inguruan gutxienez bi gizarte-etxe txiki sortzea proposatu genuen. Herritarren arretarako bulego bat (HAB), ludoteka txiki bat... eskaintzeko bi lokal prestatu beharko liriteke, herriaren erdigunera joan beharrik gabe, ahaztuta dauden auzo periferikoago hauek ere zerbitzuak behar baitituzte. Udalak proiektu hau gauzatzeko gaitasun ekonomiko duen arren, gure proposamena atzera bota zuten EAJK eta PSEk, ideia

hori gobernu-akordioan datorrela aitazkiatzen hartuta (hala izanda, ez lukete inolako arazorik izan behar hura babesteko eta aurrekontuz hornitzeke). Getxobus ere denon hauteskunde-programan zegoen eta oraindik zain gaude.

Gure bigarren proposamena etxebizitzarekin lotuta egon zen, beste behin ere: OHZ etxebizitza huts eta turistikoak igotzea proposatu genuen. Joan den astean argitaratu zen Getxon dagoela Bizkaiko etxebizitza huts gehien, Bilbon baino gehiago. OHZ igotzeak ez

du arazoa bere horretan konponduko, neurri hau beste batzuekin batera hartu beharko litzateke, baina zoritxarrez, EAJK, PPK eta PSEk atzera bota zuten, azken hilabeteotan etxebizitzaren arloan egin ditugun proposamen guztiekin egin duten bezala. Etsigarria da ikustea gazteek (eta ez horren gazteek) gure herritik alde egin behar dutela prezioei aurre egin ezin dietelako (salmentan edo alokairuan). Eta gure Gobernu Taldeak ez du neurririk hartzen, eta oposizioetik proposatzen ditugunak ere atzera botatzen ditu. Presioa egiten jarraituko dugu.

Gure hirugarren proposamena onartu egin zen, Gobernu Taldearen abstentzioarekin izan bazen ere, eta ez dakigu aurrera eramateko borondate handirik izango duten. Bigarren berdintasun-teknikari bat kontratatzea proposatu genuen, arloa indartzeko eta baliabide pertsonal gehiago emateko. Argi dago teknikari bakarra ez dela nahikoa genero-berdintasunerako politikak bultzatzen jarraitzeko, Emakumeen Etxea koordinatzeko, LGTBIQ+ politikak ezartzeko, etab.

Info getxo.ehbildu.eus



GETXO UDALERRIKO ENPRESA-ESKUALDAKETA BABESTEN DUGU

Getxolan – Udaleko Ekonomia Sustapeneko Arloak, zeina PSE-EE taldeak kudeatzen baitu, Getxo udalerrian **enpresa-eskualdaketa egiteko laguntza- eta aholkularitza-programa** jarri du abian. Ekimenaren helburua da gure tokiko enpresen jarraipena bermatzea, bai eta negozioen salmenta edo lagapena erraztea ere. Hala, aintzat hartuta gaur egun **tokiko ekonomiaren eragile nagusia enpresa txiki eta ertainak** dira, gure helburua da programa hau haien jasangarritasuna nahiz hazkuntzarako funtsezko zutabe izatea. Ekimenaren abantaila nagusienetako bat **ikuspegi pertso-**

nalizatua eskaintzen dela da. Saltzaile nahiz erosleei eskaintzen zaie laguntza eta, horrenbestez, bermatzen da enpresa-eskualdaketa **prozesuaren etapa guztietan erabaki informatuak hartzeko beharrezkoa den laguntza** izango dutela. Laguntza horrek, zalantzarik gabe, negozioen eskualdaketa erraztu ez ezik, konfiantza- eta lankidetzak giroa ere bultzatzen du inplikaturako aldean artean. Horrez gain, Getxolan Arloak bi informazio-bilera antolatu ditu: urriaren 1ean egin zen lehenengoa eta **azaroaren 19an izango da** hurrengoa, programaren xehetasunen berri emateko interesdunei.



ANIMALIARIK GABEKO JAIEN ALDE

Duela egun batzuk, Getxoko herritarrek sinadurak biltzen hasi ziren Portu Zaharreko jaietatik sokamuturra kentzeko, eta 300 baino gehiago dituzte jada. Albaitari-kliniketan eta saltokietan biltzen dabilta sinadurak. Gure babes osoa eman nahi diogu ekimenari, Getxoko animaliak babesteko alorrean aurrera egiten jarraitu dezan eta jaietan animaliarik erabiltzen ez duen udalerrria izan dadin.